




Agur Joxiñazio
joan hitzan
etorri hitzaigun bezala,
azkar,
zirt-zart batean.

Hi hil hitzanez geroztik
denbora pasatzen ari zaiguk,
denbora aurrera ziek,
baina oraindik ezin diagu sinistu
gure artetik joan haizela,
Errenteriako Arkaitz-enean
ez dukela truk berriro joko.

Hirekin batera gauza asko
joan dittuk betiko,
uste ustel franko erori zaizkiguk.
Ikusten hindugun gazte,
sasoitsu, indartsu,...
bizitzeko grinez beterik,
eta uste genin
betirako hitzala eta ginala.

Hire heriotz lazgarriaz
ulertu diagu
ez garela deus,
gure biziak ez duela
inxtant bakar bat ere
irauten,
eta nigarrari ekin zioagu
laguna galdu dugulakoz
eta biziaren laburtasunaren
berri argia eduki dugulakoz.

Oroitzen haugu Lete,
oroitzen haugu hitzan bezala,
indartsu, sendo
eta gizatasunez beterik.

Agur Joxiñazio
agur Leteko azken artzai hori,
agur Iñalurtako biztanle zintzo,
Agur, egun haundiararte!!!

JOSEBA